



2017-IX-6

1026 zkia.

restaurante

CANTAE



# Arrateko Ama gure altxorrik onena

**matrikula**  
**ZABALIK**

**2017/18 EUSKARA IKASTAROAK**

**EUSKALDUNTZE OROKORRA**

(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

**XEDE BEREZIKO IKASTAROAK**

(aurrez aurrekoa)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

**aek**

Sostoa 1, 1. solairua    Telefonoa: 943 201 379

[eibar@aek.eus](mailto:eibar@aek.eus)





## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

## Matrikula zabalik

### Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz) [gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)

943 71 21 91 • 664 277 592



## NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Eibarko  
BM-n ere bagaude

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Maialen Belaustegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.200 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu

iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LOTUA.**- Ganorabako, moldagaitza. "Ikaslari lotua izan dogu oinguan".

**LOTXUA-LO.**- Sehaska kantaren onmatopeia. "Umetako aman lotxua-lo kantuak lako kanturik".

## astean esanak

"Gehiegikeria eta neurrigabekeria nagusitzen doazen gizarte honetan, sentimenduak dira bide zuzenena hori lortzeko. Horregatik da beharrezkoa gizarte gehiago oxigenatzea eta iritzi-emaleek arrazionaltasun bidetik jotzea. Gizakiak oldarkorra izateko joera du eta hori erraz manipulatu daiteke. Beldurra da boteretsuari fruiturik emankorrenak eskaintzen dizkiona manipulatzeko jakinda. Baina Bartzelonako 'No tinc por' ez zitzaizkan egokiena iruditu: beldurra guztiok izan behar dugulako eta hezigarria delako"

(BERNARDO ATXAGA, IDAZLEA)

"Gero eta zailagoa egiten zaigu faltsutu edo zentsuratu gabeko umeendako ipuinik aurkitzea. Izan Txano Gorritxo, Hiru Txerrikumeak, Hansel eta Gretel edo Eburne Zuri. Gaur egun otso ankerrak ez du inor jaten, ibiltarien lagun egiten da eta pastelak oparitzen dizkie; Txerrikumeak jolasteko nahi ditu; Hansel eta Gretel inork ez ditu karioletan sartzen; eta amaordearen sagarra karamelizatua da, Eburne Zuri gizendu eta hain polita izan ez dadin. Zelan esango diegu umei pozoindu nahi zuela? Horrela, ahuldu egiten ditugu gure umeak eta, haurtzarora hainbeste luzatzen denez, unibertarioek gune zurrak eskatzen"

(JAVIER MARIAS, IDAZLEA)

"Zergatik dago hain emakume gutxi informatika munduan? Industria hori gizonen zuzenduta dagoelako: adibidez, bideojokoak gizonen diseinatzen dituzte, euredako apropos. Produktu horiek estereotipo maskulinoak indartzen dituzte. Aurrezuzuek indar asko dute Silicon Valley eta han uste dute arrakasta teknologikoa berezko talentutik datorrela. Inork ez du uste kirurgialari edo kontable bat jainua izan behar denik, prestatzearekin nahikoa da. Baina konputazioaren munduan gurtu egiten da jainaltasuna: 'zerebritoen' mundu horretan guztiz barneratuta dute jainua izan ahal izateko gizonen izan behar dela"

(LIZA MUNDY, PROGRAMAZIO ADITUA)



ENRIKE SOSOLA

### Els segadors

"Bon cop de falç" (igitai-zartada ona) leloa errepikatzen da Kataluniako ereserkiari. XVII. mendean, Felipe IV. Erregeren aurka matxinatu ziren lurgabeko segalariak ditu gogoan. Horrela, Lur jabe handien soroetako garia moztea bizibide zuten jernalariak askatasunaren sinbolo bilakatu ziren. Euskal Herrian ere izan ziren halakorik, oroimen kolektibotik kanpo geratu diren arren. Gariaren laborantzaren azken testiguak ere joaten ari zaizkigu uste baino azkarrago. Atzitik, Gipuzkoako zenbait baserriarrek gari-lanetan hasi gara berriro zenbait premia eta zalantzei erantzun nahian: Okinak izanik, gero eta zailtasun handiagoak ditugunez ganorazko garia lortzeko, zer moduzkoa aterako ote da gure lurretan? Baserriaren errentagarritasuna hobetzeko alternatiba izan liteke? Bezeroek estimatuko ote dute hemengo gari-ogia eskuartearen izatea? Horrela ba, uztailaren 15ean, Eibarren itauna bota eta erantzuna berehalakoa izan genuen: Auzolanera deituta, 30 segalari elkartu ginen garia moztu (oraingoan "igitai-zartadarik" gabe), azaoak egin eta aterpera erretiratzeko. Gazteena bi urteko Lur kataluniar-euskalduna eta 80ak pasatako Antonio Biriñaoren arrastoan jendarte bikaina osatu genuen. Biba zuek! Nola ez ba, lana amaitu zenean erromerirako tartea izan zen soinu-jole, txistulari eta dantza-maisua tarteko. Horrelako lagunarte ederra urteetako amets eta lanen saririk onena izan da. Moltes gracias segadors!

## Ikasliendako dirulaguntzak eskatzeko epia zabalik

Udalak aurten be emongo ditu ikasliendako dirulaguntzak, horretarako dittuan "Umeak eskolara" eta "Dirulaguntzak ikasleei" programen bittartez. 2017-2018 ikasturterako kanpaina esker, ikasle bakotzak 60,10 euro jasotzeko aukeria izango dau, diru horrekin herriko dendetan erosketak egitteko. Laguntzak jasotzeko eskaeriak aurkezteko epia irailaren 1ian zabaldu zan eta urriaren 31n itxiko dabe. "Umeak Eskolara" programaren onuradun izan leikiazanak etxian, posta bidez jasoko dabe informaziño guztia eta "Dirulaguntzak ikasleei" programaren onuradun posibliak, berriz, Pegoratik pasau biharko dira dirulaguntza jasotzeko baldintzak azaltzen dittuen dokumentaziña jasotzeko. Eskaera-orrixa eta aurkeztu biharreko dokumentaziña Eibar Merkataritza Gune Irekia alkartiaren buleguan (Untzaga plaza, 7 behea, Artola jatetxiaren aldamean) jasoko dittue.



*125 ikusle egon dira batezbeste Untzagan eskindu dittuen udako zine emanaldixetan, 5 urteko etenaldixa eta gero. Lehen filmak batu eban jende gehixen, 160 lagun.*

## Autismua dakenen aldeko txosna

Eibarko EAJ-PNVk aurten be txosnia ipiñiko dau Arrate egunian, **batzen daben** diruarekin alkarteren bateri laguntza emoteko asmurekin. Jeltzaliak aurreratu dabenez, txosnari esker batzen daben dirua oinguan Gautena, Gipuzkoako Autisten Alkartiari emongo detse. Goizetik zabalduko daben txosnan, bestiak beste, pintxuak, ogitartekuak eta edarixak eskinduko dittue. Gautenak Gipuzkoako 430 famelixeri emoten detse zerbitzuren bat, 180 profesionalak egitten daben biharri esker. Eibarren, Argatxan daken lokalian, autismuaren diagnostikua eta tratamendua eskintzen dabe, famelixeri laguntasuna emotiaz gain. Horrekin batera, Mogel Isasin heziketia lantzeko ikasgela be badaka alkartiak eta San Pio X.a elizan aisialdirako zerbitzua be emoten dabe.



## Dolmenen ibilbidia ezagutzeko bisita gidatua domekan



Elgoibarko, Soraluzeko eta Bergarako udalak, Debegesa garapen agentziarekin alkarlanian, Dolmenen Ibilbidia ezagutu nahi dabene dako bisita gidatua antolatu dabe domekarako. Bisita goizeko 10:00etan hasiko da, Karakateko aparkalekutik abiatuta. Euskeraz egingo dabe eta duan izango da, baiña jua nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau, 657 79 46 77 telefonora deittuta edo info@begi-bistan.com helbidera idatzita.





## autuan

### 1957 JAIXOTAKUEN JAIXA

Urrixaren 21ian alkartuko dira urte horretan jaixotakuak 60 urtiak ospatzeko. Juan nahi dabenak 80 euro sartu biharko ditue Laboral Kutxako kontu korronte honetan, izen-abizenak ziheztuta: ES79 3035 0210 55 2101023650.



### ARRATIETAKO PAELLA LEHIAKETIA

Urteroko martxan Kofradixa egunian, domekan egingo da paella lehiaketia Arrateko zelaian, 12:00xetan hasitta. Pare-hartzailliak egunian bertan emon biharko dabe izena, 11:30xetan. Talde bakotxa bi lagunek osatuko dabe eta hiru onenendako sarixak egongo dira: garaikurra eta 90 euro, garaikurra eta 60 euro eta garaikurra, hurrenez hurren.

## Primerako girua Azittaingo Andra Marixetan

Aurten be edarto ospatu zittuen Andra Mari jaixak Azittaiñen, abuztuaren 15erako preparau eben programari jarraituta: jende mordua batu eban mezarekin hasi eben eguna eta, ondoren etorri ziran jolas, herri-kirol, musika eta bestelakuak. Amabirjiñaren ome-nezko jaixa abuztuaren erdixan izaten dan arren, Azittaiñen eta inguruan bizi diranak jai-giruari bardin-bardin eustia lortu dabe eta jendia urtero animatzen da parte hartzera.

## Kasinoko udako txapelketetako sari banaketia

Ibarkurutzen dagan Kasinuan jokatu diran udako txapelketako irabazliak uztaillaren amaieran hartu zittuen sarixak. Argazkixan ikusten dittuzuenak 1. mailako billarrian, 2. mailako billarrian, tute txapelketan eta mus txapelketan txapeldun eta txapeldunorde geratu dira aurtengo ediziñuan eta, jakiña, pozarren hartu zittuen irabazittako sarixak.



## NESTOR ZUBIKARAI MARTINEZ

(2017-VIII-11)



*ZURE irribarre eta samurtasuna  
betirako izango dira GURE ARTEAN.*

Etzakoak



## GREGORIO ALBERDI OSORO "GOIO"

2017ko abuztuaren 31n hil zen, 59 urterekin



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA  
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.







## Arrate Kultur Elkarteko bazkidien erakusketia preparatzen

Arrate Kultur Elkarteak urtero Topalekuan egiten daben bazkidien erakusketia irailaren 22tik urriaren 8ra bittartian izango da aurtentzen. Hortaz, parte hartu nahi daben bazkidiak hillaen 19rako entregau biharko ditue lanak, alkartiaren buleguan (astelehen eta eguaztentean 17:00etatik 19:00etara eta martitzen eta eguenean 10:30etatik 12:30etara). Bazkide bakotzak gehixen jota bi lan aurkeztu leikez (oso haundixak ez badira). Bestalde, erakusketaren zaintza parte hartzen daben bazkidien artian egitteko asmua dakela aurreratu dabe.



## Abuztuan hasi ditue Portalea barritzeko biharrak

Portalea eraikiña Kultur Etxe modura zabandu ebe-la 21 urte beteko dira laster eta, hori dala eta, eraikiñaren barruko buleguak premiña barrixetara moldatzeko hainbat konponketa egitteko biharrak hasi ditue udan. Lehen solairuan, Kultura, Euskera, Gazterixa eta Jaixak sailletako buleguak moldatzeko lanak hainbat fasetan egittia dago aurreikusitta, urtiaren amaierara arte; hola biharrian daguazten bittartian, buleguetan biharrian segiduko dabe, jendiari ohiko zerbitzuak emoten. Obriaren arduria El Corte Inglesak daka eta aurrekontua 229.316 eurokoa da.



## Alberto Elkoro-Iribe "Tito" goguan

LAB sindikatuan Debaldea eskualdeko idazkarixa izan zan Alberto Elkoro-Iribe "Tito" goguan, aurreko domekan haren errautsak Galdaramiño mendixan zabandu zittuen eta, horren aitzakixarekin, lagunak omenaldixa eskindu zetsen eta, bestiak beste, bera gogoratzeko plaka bat ipiñi eben. Sindikatuko burukidia 2003ko abuztuaren 29xan hil zan, bihotzekuak jota.

 <b>Funeraria-Ehortzetxe</b> <b>Mugica</b>	
<b>EIBAR</b> 	<b>ELGOIBAR</b> 
<b>Beilatokia</b> <b>Funeuskadi Eibar:</b> Otaola, 27	<b>Beilatokia:</b> <b>SIGMA Industrialdea</b> (Olasoko hilerriaren ondoan)
<b>Bulegoa Eibarko</b> <b>erdialdean</b>	
<b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b> <b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a>	
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea <b>GRUPO Funeuskadi</b>	


**Lekaixoka!**  
 KILOMETROAK 2017 OÑATI

# Oñatin Kilometroak irailaren 24an

**AUTOBUS**



**ZERBITZUA**

**IRTEERA**  
 09:30ean  
 Ego-Gainetik

**8€**

**BUELTA**  
 19:00etan  
 Oñatitik

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO



## Plaza Barria koexistentzia-gune bihurtzeko biharrak enkantera

Aurten hasiko dittue Plaza Barria koexistentzia-gune bihurtzeko biharrak, proiektua aurrera eruan ahal izateko emondako aurrerapauseri esker. Moldatu biharreko tartia Fermin Calbeton kaliaren amaieratik Bidebarrieta kaliaren hasieraraino (San Andres eliza pareraino) doiana da. Egingo dira biharrerri esker, bestiak beste, espaloiak zabalduko dira, zorua barrituko da eta, horrekin batera, kalia moldatuko dabe, galtzadak eta espaloiak altuera bera eukitzeko. Udalak ekaiñian onartu eban proiektua eta abuztuan argitaratu zittuen lanak esleitzeko lehiaketaren oinarriak. 21 asteko epiaren barruan egingo diran biharrorako 274.989 euroko aurrekontua dago aurreikusita (BEZa barne).

## Abel Barriolarekin solasaldixa Armerixa Eskolan

Datorren asteko martitzenian (hilaak 12xan) Abel Barriola pelotari Armerixa Eskolan egongo da, "Ondo egindako lana" programako 9. saiuan. Armerixako Ikasle Ohien alkartiaren eskutik egingo dan ekitaldixarekin, antolatzaillak oin dala gitxi erretiratu dan pelotariari errekonozimendua egin nahi detse. Bere lan eta ibilbidiaren inguruko gogoeta eta ametsak partekatzeko, laguna eta herrikidia dan Joseba Urkiola ETBko kazetarixa izango dau solaskide. Ekitaldixa euskeraz garatuko dabe eta 19:00etan hasiko da. Sarrera libria izango da, baiña antolaketia erreztiarren, juateko interesa dakeneri aurrez izena emoteko eskatu detse arduradunak, 943 20 32 44 telefono zenbakixan edo komunikazioa@armeriaeskola.eus helbidian.



**matrikula zabalik**  
**2017-2018**  
 adin bakoitzerako  
 neurriko klaseak  
**irakasle ingelesekin**  
 informa zaitetz  
 605693147 943203197  
 bista eder / behea EIBAR  
 abbiewhiteenglish@gmail.com



**Maria Luke eta Xandra Etxabe (On Ekin lehiaketako irabazleak)**

## "Konfidantzazko fisioterapeuta bat berehala aurkitzen laguntzen dugu"

Uztailean jakin genuen Ekingunek antolatzen duen On Ekin enpresa ideia lehiaketako irabazleak Maria Luke eta Xandra Etxabe eibartarrak izan direla. Aurkeztu duten FIXME proiektuak premia duzunean konfidantzazko fisioterapeuta bat aurkitzen dizu, prezio onean eta berehala atenditzeko disponibilitatearekin. Proiektuaren sortzaileak Maria eta Xandra izan dira, baina orain eurekin batera beste bi gazte ekintzaile daude: Pablo Carmona eibartarra eta Pablo Docal bilbotarra.



Maria Luke



Xandra Etxabe



### - Nola funtzionatzen du zerbitzuak?

Dena *online* egin ahal izango da. [www.fixme.es](http://www.fixme.es) webgunean bezeroak esaten digu zein lekutan, egunetan eta ordutan behar duen fisioterapeuta bat, eta guk zerbitzu hori kontratatzeaz arduratzen gara, guk egiten dugu gestioa. Irailaren hasieran jarri dugu *online* zerbitzua, baina hau ez da azken bertsioa izango, plataforma garatzen ari gara eta zerbitzua gehiago automatizatzeko asmoa daukagu. Lana azkartu egingo da, baina harreman zuzena ez dugu galdu nahi eta bezeroak gurekin hitz egiteko aukera izaten jarraituko du, horrela nahi izanez gero.

### - Non zabilzate lanean?

Orain fisikoki Madrilen gaude, Google Campus-en. Google-eko programa batean sartu ginen eta euren bulegoetan garatzen dihardugu proiektua, euren laguntzarekin. Pila bat ikasten ari gara marketing digitalari buruz. Nahiz eta Madrilen egon, fisioterapia-klinikak Madrilen, Euskal Herrian eta Katalunian ditugu. Fisioterapeuta-sare bat sortuta daukagu eta plataforma berriarekin marketing kanpaina bat jarriko dugu martxan sarea handitzeko.

### - Nolakoa onurak ditu plataformak?

Bezeroarentzako oso eroso da, guk egiten dugulako gestio osoa. Bestetik, gure plataforma dohainik

da fisioentzako. Zerbitzua kontratatzerakoan ordaintzen da; beraz, fisioak berdin kobratuko du, inoiz ez du galduko. Askotan pasatzen da bezeroa ez dela agertzen eta fisioak dirua eta hitzordua galtzen duela. Fisioiek daukaten arazo handi bat da: esate baterako Madrilen hileroko % 50 galtzen dute bezeroek huts egiten dutelako.

### - Zelan eman duzue ezagutzera zerbitzua?

(Maria): Entrenatzaile pertsonala naiz eta horretaz gain entrenatzaileei formakuntza ematen diet. Nire lana dela eta, fisioterapeuta askorekin daukat harremana eta horiek, aldi berean, kontaktu asko daukate beste fisioekin. Pazienteekin zaila da, baina oraintxe gure bezero tipoa kirolariak direla uste dugu: kirolari ez profesionalek asko erabiltzen dute fisioterapia zerbitzua. Hortaz, Madrilen dauden kirol ekitaldietara joaten gara: *stand* bat jartzen dugu eta han kirolariak artatzen ditugu dohainik. Geure burua ezagutzera emateko modu bat da, eta gurekin lan egiten duten fisioterapeutentzako euren negozioak ezagutzera emateko era. Eibarren aurkezpen ekitaldi bat egin nahi dugu, eta Ekingunek eman digun saiarekin zer egin dugun erakutsi, kontaktu genuen guztia errealitate bihurtu dela erakutsi, hain zuzen.

**Ketesa 2010** *bulego eta kolektibitateko instalazio osoak eta materiala*

*altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...*

**bulego materiala enpresetan banatzen dugu**

[www.ke2010.com](http://www.ke2010.com)  
[info@ke2010.com](mailto:info@ke2010.com)



**GATE**

English School

Lorea Hernández Arizaga  
Ingeles Filologian Lizentziatua


Urtzaile, 8 behea  
20600 EIBAR  
605 716 717



Kids&Us<sup>®</sup>  
school of english

ENGLISH FOR LIFE

*Ingelesa urte 1-etik aurrera*



"BE THE DIRECTOR OF YOUR OWN STORY"

[www.kidsandus.es](http://www.kidsandus.es)

**ATE IREKIEN JARDUNALDIA KIDS&US EIBARREN**

Gure metodologiari buruzko hitzaldia eta haurrentzako aldibereko ekintzak.

**Larunbata, Irailak 16, goizeko 11.30ean**

Etorri nahi izanez gero, bidali mezu bat ondorengo helbidera; [direccion.eibar@kidsandus.es](mailto:direccion.eibar@kidsandus.es)  
Hurbildu gure koloreen mundua ezagutzera!!

Kids&Us Eibar

C/ Ego-Gain, 8 · 20600 Eibar · T. 688 607 638 · [direccion.eibar@kidsandus.es](mailto:direccion.eibar@kidsandus.es)

## CARE

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

CARE (Errefuxiatuei laguntzeko Kontseilua Eibarren) 2015ko irailean sortu zen, errefuxiatuen irudi hunkigarriak ikusi ondoren. Horietako gehienak Siriakoak ziren, eta, jazarpen eta txirotasun egoeretatik ihesi, Europa zeharkatzea zuten helburu.

CAREren helburua errefuxiatuen harrera eskatzea, eta, aldi berean, harrera eta asiloa eskubideak direla aldarrikatzea da. Horretarako sentsibilizazio eta kontzientziazio lanak egiten dituzte ordezkari politikoen eta gizartearen aurrean.

### Ekintza nagusiak

Beste GKE batzuk diseinatutako kanpainak jarri dituzte martxan gure herrian, esate baterako, arropa, zapata, kanping-denda, lo-zaku eta manta bilketak, edo elikagai bilketak. Horretaz gain Zaporeak, Salvamento Marítimo edo Pro Activa bezalako beste GKEetara bildali duten dirua biltzen jardun dute.

Manifestazioak eta kontzentrazioak antolatu dituzte, eta horietan asilo-eskubidea eta Europear Elkarteak berea egin zuen errefuxiatuen harrera-kopuruaren konpromisoa erreklamatu dute. "Ongi etorri errefuxiatuak" plataformarekin kolaboratu zuten Aste Santuan Gernikara egin zen ibilaldiaren antolaketan.

Pentsa-artikuluak idatzi dituzte eta irrati-saioetan hartu dute parte, eta elkarteko kide batzuk Greziako errefuxiatu-eremuetan laguntzera joan dira.

**Telefona:** 645 720 989 / 630 808 448

**Emaila:** care.eibar@gmail.com

**https://es-es.facebook.com/care.eibar**



Harrera eta asiloa eskubideak direla aldarrikatzen du CAREk.

## EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Eibar Merkataritza Gune Irekia xedetzat komertzio eta aisialdi sektorea sustatzea duen irabazi-asmorik gabeko elkarte da, Eibarko merkataritza Gipuzkoan lehen mailako erreferentzia izateko sortua. Bere zeregina merkataritza eta aisialdi sektoreari aberastasuna eskaintzea eta, barne-mailan, hazkunde, garapena eta herritarrentzako kalitatezko zerbitzua eskaintzea da; eta, kanpo-mailan, bisitariarentzako eskaintza erakargarria sortzea, eskaintza osoa, konpetitiboa eta interesgarria eskainiz.

### Ekintza nagusiak

- Animazio-ekitaldiak antolatu eta sustatu.
- Izaera sozio-kulturaleko eta enpresa-sustapeneko ekitaldiak antolatu.
- Eibar merkataritza eta aisialdi gune bezala sustatu herri, eskualde eta probintzia mailan.
- Erakunde publikoekin kolaboratu.
- Merkataritza sektorearen ikerketa eta garapen-lanak egin.
- Sektorearen informazio, formazio eta sustapenerako materialak sortu eta erreproduzitu.
- Denda eta tabernen onurarako diren herri-guneak berreskuratzen, moldatzen eta hobetzen lagundu.

**Helbidea:** Untzaga plaza 7, behea 3

**Telefona:** 943 25 40 83 / 943 20 66 69

**Faxa:** 943 20 66 23

**e-maila:** info@eibarcentrocomercialabierto.com







**JON  
LARREATEGI**  
(ENTRENATZAILEA):



Jon Larreategi ibilbide luzea egin zuen foballean, iaz 31 urterekin jokatzeari laga eta CD Vitoria Eibar FTko filialean bigarren entrenatzaile kargua hartu zuen arte. Aurten beste bi denboraldirako kontratua sinatu du eta pozik dihardu 2. B mailara igo berri den taldean. Jokalari moduan, Eibar FTko maila guztietan jokatu eta gero, Valentzia B (denboraldi bat), Athletic B (bi denboraldi), Levante B (1), Sestao (2), Amorebieta (4), Barakaldo (1) eta Portugalete (1) taldeetan hartu zuen aterpe. Kapitaina ere izan zen behin baino gehiagotan, eta orain taldeak kudeatzen ibilbidea egiteko asmoa du.

## “Entrenatzaile ona izateko bertuterik? Bihotzetik bihotzera berba egitea”

**– Zelan izan zenuen CD Vitoria taldeko bigarren entrenatzailea izateko aukera?**

Aurretik bi urte eginak nituen Eibar FTko football-eskolan beharrean, Barakaldorekin jokatzeko nuenetik hasita. Eibar FTk oraingo postua hartzea proposatu zidan, Eibarkoa nintzela eta esperientzia banuela argudiatuta. Buelta batzuk eman nizkion gaiari eta eskaintza aproposa iruditu zitzaidan. Ia lesiorik izan gabe ere, 31 urterekin jokatzeari lagatzea erabaki nuen. Ordurako entrenatzaile titulua ere aterata nuen eta ikasteko lekurik onena iruditu zitzaidan.

**– Aste osoko lana izaten duzu? Zelan antolatzen duzue lan hori?**

Gauza batzuekin eta besteekin, ia aste osoa jaten digu gure lanak. Eguenetan libratzen dut. Bestela, astelehenetan partidu osteko entrenamendua egin ondoren, aste osoko lana prestatzen dugu, non sakondu erabakita. Martitzenean jokalarien analisi indibidualetan zentratzen gara, zertan hobetu dezaketen bilatzeko. Ondorengo egunetan aurkaria aztertzen dugu, etxean edo kanporean jokatzeko tokatzen zaigunaren arabera, talde horren azken bi partiduei erreparatzeko... Orain Elgoibarren bizi naiz eta entrenamenduak lurretan izaten ditugu.

**– Zeintzuk dira aurten taldearen asmoak?**

Mailari eustearrekin konforme, batez ere lehen ekipoak behar duenari laguntzeko gaudelako hemen. Egunerokoan ere, Mendilibarrek askotan deitzen ditu gure jokalariek. As-

telehenetan ere talde bietan jokatu ez dutenek elkarrekin aritzen dira. Iaz, esaterako, gure taldeko jokalariek guztiek entrenatu zuten, baten behintzat, lehen taldekoekin. Gero, Markel Areitio atezainak debutatu zuen Eibarrekin; eta baita beste bik ere Kopa lehiaketan. Maila hain azkar igotzea lorpen handia izan da.

**– Baina ez da jokalaririk igo 1. Mailako Eibarrean... Gainera, badago eibartarrik taldean?**

Ez da gauza erraza iazko 3. Mailatik berehala jauzia ematea. Talde filial batek, gainera, ez du beste taldeen funtzio bera izaten. Esaterako, iaz titularrak izandako batzuk (adina dela-eta) taldea laga dute, beste batzuek tokia egiteko; bestelako talde bat izanda jarraitu luketenean. Ahalegindu gara blokeari eusten, baina erdia berritu dugu gutxi gorabehera. Eibarkoa bakarria dugu taldean: Julen Lopez. Nik jokatzeko nuen postuetan jokatzeko gainera, zentral moduan eta ezkerreko albokotan. Baina badaude eskualdekoak diren beste batzuk. Eta Susaetak, esaterako, Anaitasunean jokatu du lagata.

**– Azkenean Aurrera Vitoriak lagatako Olanbe zelaian jokatzeko diharduzue. Zaletu asko du CD Vitoriak?**

Ez pentsa, partiduetara ez da jende askorik joaten. Orain, igo denez, zertxobait gehiago. Horretan abantaila gutxi dugu, 2. B mailan talde handiak izanda, hiriburuetakoa ere tartetan, askotan kanpotarrek guk baino jarraitzaile gehiago dituztelako.

**– Zein alde nabaritu duzu jokalaria zinenetik gaur egun diharduzun entrenatzaile kargura egindako jauzian?**

Jokalariek txandakatzen dira euren artean eta aste baten jokatzeko ez duenak hurrengoan jokatu dezake. Entrenatzaile izatea zailagoa da, bakarria dago talde bakoitzean. Bestalde, jokalaria bere lanarekin amaitu eta etxera joaten da, ez du beste ardurarik. Entrenatzaileak, bestalde, taldea kudeatu behar du, bideoak eta aurkariak ikusi, partiduetara joan... Batzuen eta besteen satisfakzio-maila ere desberdina da. Eta, jakina, aulkian zaudela inpotentzia sentsazioa ere askoz handiagoa da. Ordezkoa zinenen sentitzen zenuena modukoa.

**– Gustokoen duzun entrenatzailearik?**

Mendilibar bera, zein bestela? Eibarrekin egiten diharduena hobetzea ondo kostatuko da, egokiena da talderako. Emery gustatzen zait eta, batzuk pertsona moduan kritikatu badute ere, Valentzian dagoen Marcelinoren lana aipatuko nuke.

**– Zer behar da entrenatzaile ona izateko? Zuk zein asmo dituzu?**

Nire ustetan, normala izatea, bakoitzari erreparatzea, jokalariek zugar sinestea, euren gaitasuna heldu jakitea... Azken batean, bihotzetik bihotzera berba egitea. Nire aldetik, bestalde, presa barik dihardut, baina aurrera begira. Oso gustora nago CD Vitorian, urratsak eginez, eta talde filiala izatea aberasgarria deritortu.

# Laugarren denboraldia izarren artean

Malagan irabazi ondoren, Athletic-ekin Ipuruan galduz hasi du Liga Mendilibarren taldeak: orain arte gol bat sartu du taldeak eta beste bat jaso bi partidutan. Fitxaketak egiteko azken egunean Eibarrera heldu zen Lomban atzelariarekin batera, beste sei jokalar berri izango ditu Eibar FTK denboraldi honetan, azkenetako kopururik txikiena. Dmitrovic eta Ivan Alejo (Alcorcon), Cote

(Oporto), Paulo (Lisboako Sporting), Jordan (Espanyol) eta Charles (Malaga) izan dira fitxaketak, Granadatik etorritako atzelariarekin batera. Charlesekin bere talde-ohiari sartutako golak hasiera ona eman zion eibartarren kanpoko partiduei eta zapatu honetan, 18:30ean hasita, Andaluziako lurretan Sevilla izango du aurkari Sanchez-Pizjuan zelaian. Ez da erraza izango punturik urratzea.



Yoel atezaina



Riesgo atezaina



Dmitrovic atezaina



Gálvez atzelaria



Ramis atzelaria



Capa atzelaria



Paulo atzelaria



Cote atzelaria



Arbilla atzelaria



Lombán atzelaria



Juncá atzelaria



Escalante erdilaria




Rivera erdilaria



Inui erdilaria



Bebé erdilaria



Rubén Peña erdilaria



Dani García erdilaria



Fran Rico erdilaria



Iván Alejo erdilaria




Pedro León erdilaria



Jordán erdilaria



Enrich aurrelaria



Kike García aurrelaria



Charles aurrelaria

## AURREDENBORALDIKO PARTIDUAK.-

**Zarautzen:** Real Union 1 Eibar 3 (*Enrich, Kike, Nano*)

**Atxabalpen:** Eibar 4 (*Capa 2, Nano, Enrich*) Barakaldo 0

**Austrian:**

Wartford 1 Eibar 0

Leeds United 2 Eibar 4 (*Sarriegi, Arbilla, Enrich, Oliveira*)

Alanyaspor 1 Eibar 3 (*Kike Garcia, Escalante, Galvez*)

Schalke 04 1 Eibar 0

**Xixonen:** Sporting 3 Eibar 2 (*Alejo, Bebé*)

**Torrelavegan:** Oviedo 0 Eibar 1 (*Kike Garcia*)

**Iruñean:** Osasuna 2 Eibar 0

**Zaragozan:** Zaragoza 0 Eibar 2 (*Inui, Benito bere atean*)

**LIGAN.-**

Malaga 0 Eibar 1 (*Charles*)

Eibar 0 Athletic 1

**AURREKO BARIXAKUAN.-**

**Baionan:** Girondins 0 Eibar 0

## EIBARREN JARDUNDAKO JOKALARIAK BESTE TALDEETAN.-

**18 Lehen Mailan:**

Reala (*Navas, Zurutuza, Oiarzabal*)

Athletic (*Boveda, Susaeta*)

Alaves (*Manu Garcia*)

Malaga (*Adrian, Keko, Borja Baston*)

Levante (*Luna, Morales, Nano*)

Getafe (*Markel, Angel*)

Leganes (*Cuellar, Dos Santos*)

Deportivo (*Albentosa*)

Girona (*Iraizoz*)

**21 Bigarren Mailan:**

Osasuna (*Manu Herrera, Lillo*)

Numantzia (*Pere Milla, Dani Nieto, Manu del Moral*)

Zaragoza (*Irureta, Javi Ros, Toquero*)

Albacete (*Nestor Susaeta, Aketxe*)

Valladolid (*Borja Fernandez, Hervias*)

Alcorcon (*Errasti*)

Bartzelona B (*Ruiz de Galarreta*)

Cadiz (*Eddy Silvestre*)

Cordoba (*Javi Lara*)

Lorca (*Albisua*)

Nastic (*Abraham*)

Oviedo (*Saul Berjon*)

Sporting (*Calavera*)

Tenerife (*Alex Garcia*)

**Eibartarrak 2. B mailan:**

Real Union (*Hernaiz*)

Bilbao Athletic (*Aitor Seguin*)

Amorebieta (*Iker Seguin*)



## 2. Mailan beste urrats bat egiteko prest

2. Mailako bigarren multzoan jardungo duen emakumezkoen lehen taldeak bikain hasi du denboraldia, San Ignacioren Bizkaiko lurretan irabazita (2-3). Azken denboraldiotan emandako aurrerapausuekin jarraituz, goi postuetako borrokan sartu nahi du taldeak, azken batean 1. Mailara igotzeko asmoa ahaztu barik. Horretarako, Xuban Peña entrenatzaile berriarekin batera, zortzi jokalaririk sartu ditu: Nerea Gantxegi, Adriana Urkizu, Kattalin Badiola eta Olatz Santana (Añorga), Irati Ibarrola (Oiartzun), Ane Larrañaga (Mariño), Irati Pejenante (Hernani) eta Idoia Agirre (Bridgeporteko Unibertsitatea).

### AURREDENBORALDIKO PARTIDUAK.-

**Hiruko Torneoa Unben:** Eibar 0 Osasuna 1 / Eibar 0 Parquesol 1

**Añorgan:** Añorga 1 Eibar 3 (*Basterra, Tazo, Agirre*)

**Iruñean:** Osasuna 2 Eibar 0

**Zarautzen:** Zarautz 1 Eibar 1 (*Concepcion*)

**Beasainen:** Goierri Gorri 0 Eibar 5 (*Agirre 3, Aristrain, Ibarrola*)

### LIGAN.-

San Ignacio 2 Eibar 3 (*Ibarrola, Gantxegi, Agirre*)



## Deporrekoek irteera antolatu dute Picos de Europara hilaren 16/17rako

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak beste irteera bat prestatu du irailaren 16 eta 17ko astebururako. Picos de Europara egingo duten mendi-ibilaldi horretan 2.650 metroko Torre Cerredo gaina egingo dute. Interesatuek izena eman dezakete Deporreko lokaletan (martitzen eta eguenetan, 19:30/20:30).


Horrez gain, uztailaren 22tik 25era Pirinioetara egindako txangoan 17 lagun izan ziren. Batz bestea 1.500 metroko desnibelari egin zioten aurre egunero eta, "lau etapak luzeak eta gogorrak izan baziren ere, Beasqueko paisaia ikusgarriez inguratuta giro ezinhobean" ibili ziren. Aneto (3.404 metro), Mulleres (3.010), Salvaguarda (2.738) eta Peña Montañesa (2.295) gainak zapaldu zituzten.

## Hasi da judo ikasturtea Kalamuan

Kalamua klubak ikasturtea hasi zuen irailaren 4an, helduentzat eta haurrentzat prestaturiko jarduera desberdinekin. Bertatik diotenez, "UNESCOk ere judo kirol egokiena izendatu baitute 4tik 12ra arterainoko neska-mutilentzat". Errespetua, kideasuna, disziplina eta jarraitkortasuna lantzeko oso aproposa dela deritzote.



*Olatz Santana atezaina*



*Iratxe Moreno atezaina*



*Adriana Urkizu atzelaria*



*Aiaitz Seoane atzelaria*



*Estibaliz Arretxe atzelaria*



*Irati Uriarte atzelaria*



*Maitane Basterra atzelaria*



*Naiara Lete atzelaria*



*Nerea Gantxegi atzelaria*



*Olatz Areitio atzelaria*



*Ainhoa Alonso erdilaria*



*Ainhoa Laruskain erdilaria*



*Ana Mar Luzuriaga erdilaria*



*Ane Aristain erdilaria*



*Iraide Pejenante erdilaria*



*Kattalin Badiola erdilaria*



*Melani Concepcion erdilaria*



*Ane Larrañaga aurrelaria*



*Idoia Agirre aurrelaria*



*Irantzu Ibarrola aurrelaria*



*Sara Tazo aurrelaria*



## HIRU PAUSOAK:

### Eltzartza, Sumendixa, Lezeta abeletxe

Kondaira zaharrak dienez, Ama Birjina Arraten edo Arriarten agertu zitzaion artzain bati. Hori ikusita, eibartarrek bere omeneko eliza eraikitzea erabaki zuten. Baina Arrate gaineko zelai hura urruti eta toki altuan zegoenez, herritik hurbilago eraikitzea erabaki zuten, Azitain aldean. Bertan hasi ziren eliza eraikitzen, baina gauez, aingeru itxuraz agertuz, Ama Birjinak harriak burdi gainean jasotzen omen zituen Arrateraino, bidean hiru pauso edo geldiuone eginez. Gizaldietan zehar, horixe izan da eibartarrok Arratera igotzeko erabili dugun biderik arruntena, eta Ama Birjinaren hiru geldiuoneen oroigarri, bidean aurkituko ditugun hiru ermita-txo edo "Santutxo"ak.

"ARRATEKO PAUSOAK" IZENEN IBILBIDEAREN HASIERA Azitaingo elizaren eta Untzuetarren jauregiaren tartean dagoen rotondan dago, zeramika lan batez adierazita. Toki berean, Eltzartzako zubi zahar berreraikia eta Apalategi errotaren harriak ere ikusiko ditugu, gaur egun galduta edo ahaztuta dauden erroten oroigarri: Apalategi, Ezkaregi, Azitain, Barrenetxe... beste garai bateko ohituren isla.

Bertatik abiatuta, Eltzartza baserri ingurutik gora, berritutako hiru Santutxoetan gelditzeko aukera dago:

- **Lehenengoa Sumendixa baserriaren inguruan dago.** Bertan **Jose Antonio Azpilikueta** artista eibartararen lana ikus daiteke, kondaira zaharra azalduz.
- **Bigarren pausoa Lezeta abeletxe inguruan dago,** eta aterpe horretan **Esther Galarzaren** arte-lana ikus daiteke: zeramikaren egindako lana da, esmaltez apaindua, eta Arrateko amaren irudia eta abestia, "Arrateko Ama" ezaguna, erakusten ditu.
- **Hirugarrena aurretik 10 minutu ingurura dago, Zestero-kuan,** iturria baino metro batzuk gorago. XVII. gizaldiko grabatu baten erreproduzioa du apaingarri: **Jule Egañak** egindako lana da, eta baserri munduko zein itsas munduko irudiak bil-tzen ditu.

Bidea jarraituz, beste 10 bat minutuan Arratera helduko gara.



## Domeka goizean antxintxiketan gora

Simon Aldazabal Sari Nagusiak XXII. edizioa biziko du domekan. Goizeko 10:30ean Klub Deportiboaren aurretik hasita, bost kilometro eta erdiko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek. Izena 09:30etik aurrera eman ahal izango da Deporren eta, Arraten proba amaitzerakoan, lehenengo sailkatuek dagozkien sariak jasotzeaz aparte, beste hainbat sari ere banatuko dira helmugaratutako guztien artean. Horrez gain, Urkizura buruan heltzen denak Oberenak oparitutako txuleta jasoko du. Oraingo edizioan aurten laga gaituen Juan Luis Azkoaga omenduko dute, klubeko atleta izateaz gain antolatutako ekitaldietan laguntzen ibiltzen zela gogoratzeko.

## Bolatokian 17:00etan da hitzordua

Arrateko Ama Sari Nagusiaren Hiru-Txirlo bola txapelketa jokatuko da Arrate egunean, 17:00etan hasita, bertako bolatokia. Parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko da eta hainbat sari banatuko dira goiko postuetan sailkatzen direnen artean: irabazleak txapela eta errekaudazioaren %30 jasoko du, bigarrenak errekaudazioaren %20, hirugarrenak errekaudazioaren %15, laugarrenak errekaudazioaren %10 eta bosgarrenak ustekabea deiturikoa. Horrez gain, El Corte Inglesek, Azitain gasolindegia eta Eroskik sari bereziak eskainiko dituzte eta Realak eta Eibar FT-k euren partiduetako bina sarrera.



## 1945 urte inguruko probalekua

Florentino Areta alkate zela egin zen Arrateko zelaian dagoen probalekua, 1945. urtearen bueltan. Bertako harrien pisuak, bestalde, honakoak dira: 2.020 pisatzen du handiak (ididematzen erabiltzen denak) eta 750 txikienak (gizonharria dena).

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com)

667 54 89 16





**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



# KITTONBOLIA



## Opariz beteta egongo da Kittonbolia

HAMALAU GARREN URTEZ ZABALDUKO DU ...eta kitto! Euskara Elkartek **Kittonbolia** Arraten, eliza parean. Urtero bezala goizeko 10:00az geroztik, nahi duenak txartelak euro batean erosi eta apalak betetzen dituzten opariak etxera eramateko aukera ederra izango du.

Sari moduan banatzeko zerbait eman duten enpresa eta erakundeek laguntzari esker era guztieta-ko opariak banatuko ditugu aurten ere: gaztak, afariak, txuletak, erosketa-txartelak, ardo botilak, telebista, tableta, motxilak, argazki kamera, kamisetak, motxilak, erlojuak, urdaiazpikoak, lurrinak, eskola-materiala, Coliseorako sarrerak... eta beste hamai-ka sari eder banatzeko irrikitan gaude. Eta, jakina, ...eta kitto! Euskara Elkartek bihotzez eskertuko dizue txartela erostean emandako laguntza. Izan ere, urtero bezala Kittonbolan batzen den dirua Eibarren euskararen alde beharrean lan egiteko erabiliko dugu eta guztiz beharrezkoa da Ongi Etorri Berbetan, Txalan-Txalan, hitzaldiak, ikastaroak, Ber-

betan, Txikitto!, Mintegia, Bertso-paper lehiaketa, Ipurterre ipuin lehiaketa, ...eta kitto! astekaria, hitzaldi soziolinguistikoak, etakitto.eus ataria, ikerketak... eta beste hainbat proiektu garatu ahal izateko. Animatu eta jokatu, zure laguntzari esker euskara irabazle irtengo da-eta!

**INOIZ BAINO SARI GEHIAGO  
DAUZKAGU AURTEN**



**Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera zabala izango da. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda eta enpresa guztioi!!!**



**ANTOLATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**LAGUNTZAILEAK:**

- ...eta kitto!
- +X- harategia
- Akara
- Ansa bitxitegia
- Aratatto
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Athletic Club
- Avia Amaña gasolindegia
- Avia Azitain gasolindegia
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Benicoba
- Burbujas y Mas
- Capi
- Closet
- Dandara
- Dirdai
- Ditare
- Divina Valentina
- Domeinua.eus
- Eguren
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Kirol Elkartea / SD Eibar
- Eibar Motor
- Eibar Rugby Taldea
- Eibar Sasoian  
*Maidar Carrasco*

- Eibar Sasoian  
*Isasi Masajeak*
- Eibar Sasoian *Akorde*
- Eibar Sasoian *Ane Campos*
- Eibar Sasoian *Filt Corpore*



- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Eibarko Udala (Kultura)



- El Canton de la Avenida



- El Corte Ingles



- El Jardin de Tulipa
- El Vestidor
- Emankor



- Eroski Eibar Hipermerkatua
- Eskarne
- Esther Galarza
- Estaziño 16
- Farmalur
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek





# ESKERRIK ASKO

## laguntzaile eta

### parte-hartzaile guztiei!!!

- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Gustatzen Jata
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idioa Bergaretxe Spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki Harategia
- Ipur Sagardotegia
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi
- Izane
- Jauregi
- Jaz Zubiaurre
- Jeronimo
- Jorge Vega
- K2
- Kantabria Jatetxea
- Kantoi Gasolindegia
- Kenay estetika
- Kerala
- Ketesa
- Khol ileapaindegia
- Kinkila
- Kokein
- Kontent
- Kopina
- Kresala arraindegia
- Kultu taberna
- Klauss
- Lacuesta optika


#### • Laboral Kutxa



- Lakett
- Leder
- Lolos
- Look
- Luis del Rey
- Mamacas
- Marian Idoia Spa
- Marsi
- Mas Que Wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika harategia
- Muma
- Natural
- Neure
- No Comment
- Oberena harategia
- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia
- Pirritx eta Porrotx



#### • Pitxiak




- Publi-Resa
- Salaberria
- San Andres gozotegia
- Sosola baserria
- Styling
- Su ta Gar
- Sutondo Isasi
- Sutondo Labaderokua
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zorionak Kid's and Party
- Zubi Gain
- Zurkulu

# Arrateko Amaren Jaixak 2017

## Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

- 18:00.-** MEZIA Arrateko Santutegixan eta, ondoren, SALBEA. Jarraixan, TXUPINAZUA eta kanpai-errepika.
- 19:00.-** HERRI-KIROLAK.
- 19:00.-** TRIKI-POTEUA txosnetan.
- 20:45.-** FLASHMOB.
- 21:00.-** BERTSO AFARIXA: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Onintza Enbeita. Gaijartzaillia: Jon Mikel Mujika. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ... eta kitto!
- 21:00.-** HERRI-AFARIXA.
- 22:30.-** KONTZERTUA, txosnen eskutik: Eraso!, Arkada Social eta Skakeitan.
- 04:00.-** JOLASAK.



## Irailak 10, KOFRADIXA EGUNA eta basarritar jubilauren eguna

- 10:30.-** S. Aldazabal XXI. ANTIXITXIKETALDIXA. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
- 11:00.-** MEZA NAGUSIXA bertsolarixekin eta Arrateko ezpata-dantzarixekin. Ondoren, prozesiñua Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
- 12:00.-** PAELLA LEHIAKETIA.
- 14:00.-** Paella lehiaketako irabazlieri SARIXAK BANATZIA.
- 17:30.-** IDI PROBAK.

## Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10:00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera IGOERIA, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaa banatuko dittue Zesteroko iturrixan Jai Batzordiak antolatuta.
- 10:00.-** KITTONBOLIA.
- 10:30.-** KALEJIRIA Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.
- 11:00.-** MEZA Nagusixa Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren EZPATA-DANTZIA egingo dabe. Ondoren, Arrateko Amaren PROZESIÑUA, Usartza Txistulari taldiak, Jainaga eta Narbaiza trikilarixak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta.
- 12:00.-** PRESUEN eskubidien aldeko ALKARRETARATZIA.
- 12:30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko dittue zelaixan.
- 13:30.-** TRIKILARI ETA BERTSOLARIXAK.
- 17:00.-** BERTSOLARIXEN SAIUA.
- 17:00.-** Arrateko Amaren HIRU TXIRLO Sarixa. Antolatzaillia: Asola Berri alkartia.
- 17:30/20:30.-** Bete zaitetz... baina emozioz! alkoholaren inguruko kanpaiña informatzaille eta hezitzaillia. Sasoia alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) **ALKOHOLEMIA KONTROLAK** egingo dittu.
- 17:30.-** DANTZA SOLTE TXAPELKETIA. 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).
- 18:30/21:00.-** DANTZALDIXA Luhartz taldiarekin.
- 23:00.-** KONTZERTUA, txosnen eskutik: Woman Powah.



## Arrate egunaren inguruko mezak

- **EGUNEAN (ARRATE BEZPERAN):** 18:00.- Salbea Arraten.  
19:00.- Salbea San Andres parrokian, koroak lagunduta.
- **BARIXAKUAN (ARRATE EGUNEAN):** 09:30ean, 11:00etan  
(meza nagusia eta prozesioa), 13:00etan eta 18:00etan.
- **DOMEKAN (KOFRADIA EGUNEAN):**  
11:00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.

## Telefono jakingarriak

- LARRIALDIAK.**- SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222.  
DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.  
**OSASUN ZENTROAK.**- Larrialdiak: 943461111 /943440633.  
Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia:  
943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.  
**BESTEAK.**- Suhiltzaileak: 112/943202328.  
Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.  
**GARRAIOAK.**- Untzagako taxiak: 943203071. Anbulategiko taxiak:  
943201325. Eusko Trenbideak: 902543210 / 943120546.

## Autobus zerbitzua

- **ARRATE BEZPERAN (irailak 7):**  
Igotzeko (17:30, 18:30), Ego-Gainetik.
- **ARRATE EGUNEAN (irailak 8):**  
Jaisteko (02:00, 03:00, 04:00, 05:00, 06:00, 07:00  
eta 08:00). Igotzeko  
(09:00etatik aurrera,  
bete ahala, 19:00ak arte),  
T. Etxebarriatik. Egun  
osoan gora eta behera  
ibiliko dira. Jaisteko  
azkena 21:30ean.
- **ZAPATUAN (irailak 9):**  
Jaisteko (02:00, 03:00  
eta 04:00).
- **DOMEKAN (irailak 10):**  
Igotzeko (09:00, 10:00,  
11:00, 13:00 eta 18:00),  
domeka eta jaiegunetako  
ohiko orduetan.



# ARRATEKO AMAREN JAIK 2017

## irailak 7/8/10



antolatzailea:  
**EIBARKO UDALA**

laguntzaileak:  
ANDIRAO ELKARTEA  
...ETA KITTO!  
BETIKUAK  
EIBARKO KLUB DEPORTIBOA  
KEZKA DANTZA TALDEA



Urteko momentu berezia izaten da Arrate eguna Mirenen familian. Miren eta Miren, amama eta iloba. Jaiez gozatzeko modu bi eta sentimendu bera. Arrateko Amari behar bezalako omenaldia egiten diote urtero, Arrateko Amari dioten maitasunaren adinakoa. Pasa dira urteak, aldatu dira ohiturak eta beti iristen da irailaren 8a. Herriko altxorraren egun handia.

**B**ihotzean ez ezik, izenean ere darama Arrate Miren Iriondok. Miren Arrate Iriondo da *"Beno, Maria da berez, baina Miren deitu didate beti"*, azaltzen digu Merkatu Plazan baserriko produktuak saltzen dituen bitartean. Plazara hurbiltzen diren erosle guztiek agurtzen dute eta berriaz saltzen ikusteaz pozten dira. Mimo handiz prestatzen ditu produktu freskoez betetako poltsak eta egun ona opa die ondo kargatuta doazen erosleei. Alboko postuetan auzokideak ditu, Arrate Balleko hainbat baserritar, besteak beste. Eurentzat ere egun politak datoz, txikitatik gozagarriak izan diren egunak.

Orain Sumendixa baserrian bizi bada ere, lehen Altzubarren baserrian bizi zen Miren Iriondo. *"Azitain Arrate baino hurbilago genuen eta bertako jaiak ere oso garrantzitsuak izaten ziren guretzat, baina Arratekoak bereziak izaten ziren, denbora asko egiten genuelako bertan. Beraz, jaietan beti igotzen ginen bertara, noski"*. Altzubarrenen bizi zenean, Orbeko bidetik igotzen zen Arratera; Sumendixatik, ordea, ama birjinaren pausoetatik. *"Gainera, Sumendixaren lurretan dago lehenengo pausoa"*.

Barixakuan ehundaka lagun igoko da Arratera pausoetatik, baina Iriondok gogoratzen duenez, bere sasoiaren ere jendez betetzen zen Arrate. Orduan ia denak oinez igotzen ziren, kotxean oso gutxi, *"eta gogoratzen dut Zaldibar eta Berriz ingurutik ere jende asko etortzen zela. Trena bete-beteta etortzen*



*Miren Gisasolarentzat ohore handia da Arrateko Ama prozesioan ateratzea.*

# Arrateko Jaiak beti gozagarri

zen!". Behin Arratera helduta, ondo pasatzea besterik ez zen geratzen.

*"Orduan ez zegoen ez txosnarik ez ezer. Taberna bakarra zegoen, eta errokilak-eta saltzen zituen postua"*, oroitzen du Miren Iriondok. Koadrila eta familiarekin igotzen zen Arratera, *"tio astoarekin joaten zen"*, eta goizko 10etako mezarekin hasten zen egitaraua. *"Mezaren ostean bazkaldu egiten genuen"*, eta sabela ondo bete eta gero dantza egiteko ordua etortzen zen. Soinujoleak, trikitilariak, erromeria... jai-giro ederra sortzen zen Arrateko zelaian. *"Korroak egiten ziren eta batetik bestera ibiltzen ginen, nahi genuen moduan, eta ilargia irtetzean amaitzen zen festa"*. Iriondok dioenez, Kantabria jate-txe parean sortzen zen erromeria izaten zen azkena amaitzen. *"Abadeak ez zuen onar-*

*tzen, eta amaitu behar zela esaten zuenean, denak etxera"*. Gerra ostean gauez irtetea debekatuta zegoela gogoratzen du, *"etxera heltzeko ordua jartzen ziguten eta andrazkoak oso lotuta bizi ginen"*.

*"Aldaketa handia"* somatzen du Iriondok lehen eta orain jaiak bizitzeko moduarekin. Prozesioan ere ikusi du aldaketa, *"ez da lehenengo moduan. Lehen Arrateko Amaren irudiak sarreratxo bat zeukan, punta batzuekin osatutako arkuak, baina kendu egin zioten asko pisatzen zuelako"*.

## Belaunaldi berriak, pasio bera

Ziur pisu hori kentzea eskertzen duela Miren Gisasolak, Miren Iriondoren ilobak. Mezaren ostean, bere ahizpekin batera, Arrateko Amaren irudia prozesioan

## JULIO EGIGUREN LARRAÑAGA (2016-VIII-5)

**URTEBETE PASATU BADA ERE,  
GURE BIHOTZETAN JARRAITZEN DUZU.**

**ETXEHOAK**





ateratzen du Gisasolak Arrate egunean. *"Ohore handia da niretzat"*. Amamak bezala, ilobak sentimendu handiz bizi ditu Arrateko Jaiak. *"Kaletarrentzat ere egun polita izaten da, garrantzitsua, baina juergarako bizi dute batez ere. Guretzat Arrateko Ama urte osoko gauza da. Nahiz eta bezperan juerga egiteko ere aprobetxatu, 8an hor gaude goizean goizetik gozatzeko"*.

Kofradiako kide, prozesioak esanahi garrantzitsua duela aitortzen du Gisasolak. *"Arrateko Ama bizi dugu, bertan egon garrelako beti"*. Beraz, Arrateko Amaren irudia ahalik eta ederren erakusteko lanak aurretik hasten dituzte, eguna heltzen denerako prest lagatzeko. *"Garbitu, txukun jarri eta jantzi egiten dugu"*. Hainbat mantu ditu horretarako, *"eta momentuan politena iruditzen zaiguna jartzen diogu"*. Gainera, bitxikeria bat kontatu digu Gisasolak. *"Arrateko Amaren bi irudi daude, bata elizan dagoena eta bestea prozesioan ateratzen duguna"*.

Arrateko Jaiak udaren amaiera markatzen dute, *oporretatik buelta, "eta Arratek duen xarmarekin giro polita sortzen da bertan"*. Horregatik, ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen da Gisasola. *"Bez-*



Gisasolak bezala, trikipoteoarekin hasten dituzte Arrateko jaiak bezperan gazte askok.

*peran trikipoteoa egiten dugu, herri-afaria, kontzertuetara joan eta ahal den ordura arte egoten gara bertan"*. Atsedean hartu eta indarra batu ostean, *"Arrate eguneko 10ak aldean elizara joaten gara azken ordukoak prestatzera"*. Meza eta prozesioaren ostean, libre. *"Aurten, barixakua izanda, ikusiko dugu noiz arte luzatzen den eguna"*, dio gogotsu Gisasolak.

Arrateko zelaia ez du sekreturik Gisasolarentzat eta jaiak izan duten bilakaeraren lekuko izan da. *"Lehen asto-karrerak egiten ziren bezperan, baina debekatu egin zituzten gero. Aitak parte hartzen zuen beste 6 edo 7ren aurka, eta 3 buelta ematen zituzten. Nagusitan parte hartuko nuela esaten nuen beti"*. Asto gainean ez, baina gora eta behera ibiltzeko aukera izan du Arraten. *"Gurasoek solte lagatzen gintuzten eta guk ahal bezain beste aprobetxatzen genuen, bai Arrate egunean, bai Kofradia egunean"*.

Baserritarrentzat Kofradia egunak zentzu gehiago du Arrate egunak baino Gisasolaren berbetan. Arrate eguna pasata hurrengo domekan ospatzen da Kofradia eguna eta Gisasolaren familia hainbat koparekin jaitsi da baserrira egun horretan. *"Gazta lehiaketa egiten da eta urtero lortu dugu sariren bat"*. Honez gain, prozesioa, paella lehiaketa eta idi-probak ere egiten dira egun horretan.

*"Lehen, Arrate eguna auzokoena zen gehiago, baina orain zabaldu egin da. Festa bizitzeko modua ere, lehen erromeria eta meza ziren protagonista, baina orain aldatu egin da"*, Gisasolaren ustetan. Sasoian sasoikoa, lehen eta orain, Miren eta Mirenek, Iriondo eta Gisasolak, Arrateko Jaiak gozatzen jarraituko dute eta bertara joaten direnek ere gozatu dezatela espero dute. *"Baina Arrate errespetatu dezatela, denona da-eta!"*, eskatzen dute. *"Herriko altxorra da Arrate"*.



Oroitzapen ezinhobeak ditu Miren Iriondok Arrateko jaien inguruan.



## EUGENIO ELEJALDE GISASOLA "AMAZABALEGI"

2017ko abuztuaren 9an hil zen, 93 urterekin

*Bihotz-bihotzez eskertzen dizuegu  
eskainitako laguntza eta babesa.*

FAMILIAKOEK





## Kantabriako bertso-afariaren zilarrezko ezteietan

**B**ihar iluntzean ...eta kitto!-k antolatzen duen Arrate bezperako bertso-afaria 25. ediziora helduko da eta, urtero lez, bertsolari kartel bikaina eskainiko du. Urte askotan kalerik egin ez duen **Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak** osatutako bikotea gure artean izango da berriro, eta eurekin jardungo dute **Maialen Lujanbiok eta Onintza Enbeitak**, azken hau debutari Kantabriako bertso-afarian. Bestalde, Jon Mikel Mujika eibartarrak gai-jartzaile lanak egingo ditu hirugarren urtez jarraian, saioa ahal den borobilen ateratzeko asmoz.

Sarrera gehienak saldu badira ere, josterako asmoa duzuenok oraindik sasoz

zabiltzate. Kultura eta Sagar-Bitza tabernetan eta Kantabrian jatetxean erosi daitezke. *"Saldu gabe geratu daitezkeen azkeneko sarrerak Kantabrian bertan lortu ahal izango dira"*, diote antolatzaileek. Afariko menua, bestalde, azken urteotako berdina izango da: *"Entsalada mistoa, fritoak, entrekota garnizioarekin eta tarta"*. Prezioa ere ez da aldatu: 32 euro.

Sebastian Lizaso da urte guztietan Kantabrian gehiagotan izan dugun bertsolaria (aurten 22.a egingo du, hiru kerduta beste guztietan izan delako) eta Andoni Egañak jarraitzen dio gertutik (aurten 21.a izango da). Gregorio La-

rrañaga "Mañukorta" hirugarrena da sailkapen horretan, sasoi batean 10 aldiz izan baitzen Kantabrian jarraian (badira urte batzuk ez dela etorri) eta Maialen Lujanbio gerturatu zaio azken aldian (aurten bederatzigarrenez izango da bertsoan jaialdi horretan).

1993. urteko bertso-afariaren lehenengo edizioan, bestalde, Juan Mari Narbaza eibartarrarekin batera (hemendik gutxira beteko da bere heriotzaren lehen urteurrena), Angel Mari Peñagarikanok eta Egaña-Lizaso bikoteak osatu zuten laukotea, orduko hartan Joxerra Gartzia gai-jartzaile zela. Bihar ere izango da ondo jan eta hobeto pasatzeko aukera.



Baimendutako  
harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería  
autorizada

Bidebarrieta 20  
Tlfno: **943 20 16 69**



**ZURICH**

**Lejardi S.L.** Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



## Denetariko musika Arraten

Txosnek antolatutako **Arrate bezperako** kontzertua **22:30ean** hasiko da eta hiru musika taldek hartuko dute parte. **Eraso!** rock taldea Zarautzen sortu zen 1996an eta Sergiok (ahotsa eta gitarra), Nestorrek (gitarra), Ibaik (baxua) eta Iñigok (bateria) osatzen dute, **Arkada Social** punk-rock taldea 1997an sortu zen Arrasaten eta Hodeik (ahotsa eta baxua), Brianek (gitarra), Julio (bateria eta koroak) eta Arrik (gitarra) osatzen dute. **Skakeitan** euskal ska taldea Donostian sortu zen 2008an eta Pellok (ahotsa), Borjak (gitarra), Asierrek (baxua eta koroak), Olatzek (teklatuak eta koroak), Julenek (batera), Aitorrek (tronboia), Gorkak (tronpeta) eta Anderrek (tronboia eta koroak) osatzen dute. **Arrate egunean** dantzaldia eskainiko du **Luhartz** erromeria taldeak (**18:30-21:00**). 1983an sortutako taldeak Aintzane (abeslaria), Rafa (soinua eta teklatura), Etor (gitarra), Gorka (baxua) eta Kepa (bateria) ditu partaide. Eta gaueko **23:00etan** **Woman Powah** eskainiko duen kontzertuan, Las Tea Party DJ-ko Lorea eta Evarekin rap-a egiten duten beste emakume batzuk izango dira.



*Eraso! Zarautzen sortutako rock musika taldea.*



*Arkada Social Arrasateko punk-rock taldea.*



*Skakeitan Donostiako sustrai beltzeko euskal ska musika taldea.*



*Luhartz erromeria taldea.*



*Woman Powah taldean Las Tea Party DJ-ekin batera rap-a egiten duten beste hainbat emakumek hartzen dute parte.*



**Adolfo JAINAGA**  
Urki, 25 - 1. ezk.  
943 20 62 66

**Trikitixa eta Pandero Eskola**

**MATRIKULA ZABALIK**

**"TIRO PITXOI JATETXEA" ARRATE**  
TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

**MENUA ETA KARTA AUKERAN**  
Irailaren 11tik aurrera astelehenetan Itxita

Gurera aspaldi ekarri ez dugun herriko euskaltzaleari **BERRIAK** (abuztuaren 20an kaleratua) egindako elkarrizketaren zatiekin gatoz, eibartarrondako interesa dutelakoan. “Nik zer kontatu behar diat, bada! Memoria ere nahiko eskas dabilkit”, esanez hasten du elkarrizketa Basaurik. Bere aurkezpena horrela egiten du Jean Martin Hiribarren kazetariak: “Iragan mendeko 50eko hamarkadan borrokaren lekukoa hartu zion belaunaldi berriak gerra galdutakoari. Diktaduraren karga pisu, itomen eta harrokeriari aitziz egin eta errebelatu ziren, mezuak idatziz, panfletoak zabalduz eta Erregimen zuzengabearen kontrako kontsignaz hormak margotuz. Sabotajeak eginez, eta Espainiako banderak errez. Han zen Serafin Basauri”. Eta, amaitzeko, hala dio Serafinek: “Gaur egun ez dut lanik egiten. Talde-lanean, hala ere, Eibarko euskararen gaineko lan batzuk egin nituen (Eibarko aditza, -1998-, Eibarko hiztegi etnografikoa -2003- Eibarko euskara sarean), baina orain ez dut egiten kritikatu besterik, nire taliban izaera da, nonbait!”.

– **1935ean jaioa, Bizkaitik Eibarrera etorriak zure gurasoak. Apatamonasteriokoa, ama. Axpekoa, aita... Abertzalea bata, sozialista bestea, biak euskaldunak.**

Euskaraz hobeto egiten zuten gaztelaniar baino, Eibarren ohikoa zen moduan. Aita sozialista, eta sozialista arraroa. *Moscu irratia* aditzen zuen, *Pirenaica* ez, ez zitzaion-eta gustatzen. Estatistika guztien berri zeukan, dela gariaren produktzioa, dela kintalaren prezioa... Ama euskaltzaleagoa aita baino. Lanera etorri ziren. Aitaren baserrian denendako lanik ez, eta irten egin behar, eta Eibarrera! Orbean lan egin zuen, eta batean eta bestean, UGT inguruko jendeak Alfa sortu zuen arte, kooperatiba modura, diru apur bat jarrita hasieran. Toribio Etxeberria izan zen lehenengo gerentea Alfan!

– **Ekin-en militatzea etorriko zen gero.**

Baina ez dakit nola etorri zen ere! Bergarako Josu Oregirekin harreman dexentea geneukan. Biblioteka ederra zeukan, oso jakintsua zen, eta orientatu ere berak orientatu gintuen kultura aldetik jotzeko, ze orduan ez zegoen ezer. Ezer ere ez. Eibar kanposantua zen, desertua. Josu Oregik eta Juanito San Martinek bultzatuta jo genuen kulturara, eta handik Ekinera. Bestalde, Eibarren astean behin biltzen ginen **Imanol Laspiur, Juan San Martin** eta hirurok, eta nik haiengandik jaso nuen gehiena. Imanolengandik, adibidez, abertzaletasun izugarri hori.

– **Kultura zen zuen borroka.**

Bai, kultura, nahiz eta politikoki beti egon naizen hor, baina ETArek ekintzak sekula ez zaizkit gustatu, beti izan naiz kritikoa, beti. (...) 1977an HBren zerrendaburu izan nintzen Eibarren. Urtebete eskas iraun nuen,

nazka-nazka eginda utzi nuen, estrategia guztia goitik diseinatuta etortzen zen-eta: erakundeetan parte hartu, ez hartu... “Zer da hau, ordea? Beti kontsignapean?”. Eta utzi egin nuen.

– **Laster zinen zu euskarazko eskolak ematen.**

Bai. Ez naiz akordatzeko noiz hasi nintzen, hemezortzi-hogei urte izango nituen. Deportivo klubeko bibliotekan irakasten nuen. Ikasleak, berriz, lau bat pertsona. Emakume talde bat ere osatu zen, **Margarita Murgizuren** etxean. Maistra izandakoa zen Margarita, gerra denboran haurrekin Belgikan ibilitakoa. (...)

– **Ikastolaren sorreran ere parte hartu zenuen Eibarren...**

Etxe partikularrean hasi ziren. Nik orduan umerik ere ez neukan eta ez nintzen askorik arduratzen. Gero sartu nintzen ikastolan. Urte gogorak izan ziren, 1967an edo. Ikastolako kargua hartu nuenean, berriz, dena nire lepora zetorren. Diruz ere urri ikastolan, eta kuotak kobratzen eta dirua biltzen ibili ginen, nahiko larri. Legezkatzea behar genuen, eta katekesi izenarekin jokatu genuen. Lehen urte haiek pasa eta gero ikastola eraikuntza non jarri izan zen eztabaida.

– **Ikastolaren kokalekua?**

Bai. Kalean ala mendian, non? Puristek mendian nahi zuten, eta irabazi zuten. A zer disparatea! Denborak arrazoiz eman digu. Ikastola han dago, mendian gora, geldi-geldi. Jende erdaldunarengandik aparte, erdararekin kontaktu barik nahi zuten, ghetto modu-

**“Ikastola han dago, mendian gora, erdararekin kontaktu barik, ghetto modura!”**



**“Gure lan-hizkuntza euskara zen Eibarren, baina pikutara joana da hori”**

ra! Esan ez zuten esaten, baina horixe zen haien pentsamendua. Kalean behar zen ikastola, herriko euskararekin kontaktuan. Ordu-rako, nire kultura ardura guztiak utziak nituen, ezin nuen-eta. Itota nebilen. Bestalde, lanean aurrera egiteko aukera ere bai, eta utzi nituen ikastola eta gainerako zereginak. Ikastola karga zen niretzat, karga.

– **Kanposantua zen Eibar garai batean. Zer da oraingo egunean?**

Gaur askoz hobeto dago. Euskara zabalduta egin da, ikastolaren bidetik batez ere, baina erabilera dugu bekatua. Eibar, orduan, desertua zen kulturalki eta politikoki, baina herri euskalduna zen. Alfan, esate baterako, produktioa, tailerretan eta bulego teknikoetan ez zen euskara besterik. Gure laneko hizkuntza euskara zen, baina gaur egun ez, pikutara joan da hori! Jendea zahartu egin da, hil, eta lehen berezko zena, indarrez egin behar da, militantziaz. Hala ere, gaur egun neska-mutikoen artean euskaraz aritzea normalagoa da gure sasoiaren baino.

– **Esperantza bada, orduan, neska-mutikoen zuen garaian baino normaltasun handiagoz hitz egiten badute euskaraz...**

Euskarak lotsa galdu du, hori bai, baina egoerak eraginda gaztelaniara jo ohi da. Eibarren, hasteko, plan bat asmatu dute, euskara sustatzeko: A ke bai! jarri diote izena. Arraioa! Kalanbrea eman zidan izena irakurritza: *A ke bai!* Nola liteke! Disparatea iruditzen zait izena! Ondoren, asmatu zuten Guinness errekorra hautsi behar genuela, eta hantxe izan nintzen, *A ke bai!* izena eta guzti irentsi-ta! Hamar urteko plana, nonbait, euskararen erabilera sustatzeko plana Eibarren... Hala biz! Izenarekin, behintzat, ez dira airoso ibili!



## Liburutegiko irakurketa klubetan parte hartzeko izen-ematea zabalik

Ikasturte honetan ere ume zein helduendako irakurketa klubak ipiniko ditu martxan Juan San Martin liburutegiak eta, horietan parte hartzeko, izen-ematea zabalik dago. **Umeen kasuan**, urtebetekoe-kin hasi eta 12 urte bitarteko haurrentzat klubak antolatuko dituzte, adinaren arabera: txiki-entzatzat (urtebeteko eta HH 2/3 urteko gelako umeentzatzat, amak edo aitak lagunduta) **"Azalerako ipuinak"** eskainiko dute, umeen liburutegian, hilean behin, astelehen batean, 17:00etatik 17:45era. **"Liburu-aren poltsa"** izenekoa, berriz, bi talde egingo dira, bat HH-ko 4/5 urteko geletako

umeekin eta beste bat LH-ko 1. eta 2. mailako umeekin. Kasu bietan aitak edo amak lagundu beharko die. Hilean behin, astelehen batean egingo da, 18:00etatik 19:00etara lehen taldearekin eta 19:00etatik 20:00etara bigarrenarekin. Eta **"Paperezko hegoak"** egitasmoa LHko 3. mailatik 6. mailara bitartekoentzatzat pentsatuta dago. Portalean, hilerro, martitzenetan emango dute, 17:00etatik 18:00etara, urriaren 17an hasita. Euskaraz emango dituzte guztiak eta izen-ematea liburutegian egin beharko da, irailaren 22ra arte.

Horrez gain, **helduentzako** irakurketa klubetan parte har-



Umeendako irakurketa-klubak euskeraz dira eta adinaren arabera antolatzen dituzte.

tzeko izen-ematea ere zabalik dago. ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean egiten den **Harixa Emoten euskarazko irakurle taldeak** Antxon Narbaizaren laguntza izango du aurten ere. Saiok Portalean izango dira, hilean behin (martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara). Urriaren 3an hasiko da, Miren Gorrotxategi-

ren "33 ezkil" liburua aztertzeko saioarekin. Eta **gazte-erazko irakurketa kluba**, berriz, urriaren 10ean hasiko da, bi obra hauek komentatzeko saioarekin: Chekhov-en "La dama del perrito" eta Tolstoi-ren "¿Cuánta tierra necesita un hombre?". Informazio gehiago nahi izanez gero liburutegian galdetu.



## Zabaldute Juan San Martin Bekarako eskaerak aurkezteko epea

Astelehenean zabaldute zuten 2017ko Juan San Martin Bekarako proposamenak aurkezteko epea. Aurtengoa bekaren XIII. edizioa izango da eta Arkeologia izango du ikerketa gai. Bekaren zenbatekoa 9.000 eurokoa da eta irabazleak 18 hilabete epea izango du ikerketa lana burutze-

ko. Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan kaleratzen duen beka deialdi honetan parte hartzeko interesa dutenek Pegoran aurkeztu beharko dituzte eskaerak eta gainerako agiriak. Horretarako epea urriaren 11n amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, eibar.eus helbidean begiratu.

info@gerritek.net  
www.gerritek.net

### SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu  
teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako  
software-aren garapena

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

**Link** Juan Gisasola, 5  
943 20 39 59  
www.linkidiomas.com

**Idiomas**

MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438

**- INGELESA -**  
klaseak goiz eta arratsalde

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT

TALDE MUGATUAK

BAKOITZARI EGOKITUA

ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA

CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

MAILA GUZTIAK

Cambridge English Language Assessment

Exam Preparation Centre

ALTE

## Errebal berriaren izena eta irudia aukeratzeko lehiaketa

Errebalen jasoko duten eraikinaren izena eta irudi korporatiboa finkatzeko eskolarteko lehiaketa eta herri-galdeketa egingo ditu udalak, horretarako proposamena uztaillaren 26ko ezohiko osoko bilkuran onartu zen, prozesua zuzenduko dituen oinarriekin batera. Izenen proposamenak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek egingo dituzte eta irudi korporatiboarenak, berriz, Eibarko ikastetxe-etako Batxilergo Artistikoko ikasleek. Behin proiektuak aurkeztuta, erakusketa egingo dute eta, aurkeztutako proiektuen artean bat aukeratzeko herri-galdeketa egingo dela aurreratu dute.

Lehiaketan parte hartzeko interesa duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeek irailaren 11tik 29ra bitartean eman behar dute izena. Izen-ematea ikastetxe bakoitzeko zuzendariak egin behar du, internet bidez ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean) edo, bestela, Pegoran. Lehen Hezkuntzako ikastetxe irabazleak 2.000 euroko saria jasoko du eta Batxilergokoak, berriz, 3.000 eurokoa. Gainera, izena ematen duen LH-ko ikastetxe bakoitzak 300 euro jasoko ditu, ikastetxe irabazlea izan ezik. Lehiaketa udal gobernu-taldeak EH-Bildu Udal taldearekin batera iazko aurrekontuetan adostutako zuzenketa baten ondorioz ipini da martxan.



## Asteburuan hasiko dira Bien Aparecida amabirjinaren jaiak

Urtero legez, aurten ere Bien Aparecida amabirjinaren omenezko jaiak ospatuko dira gurean, Kantabriako Etxearen eskutik. Egitaraua asteburu honetan, zapatuan abiatuko da: goizeko 10:00etan Bien Aparecida foball txapelketa jokatu da Ipuruako anexoan eta 16:30ean, berriz, igel-toka eta toka txapelketak, Ipuruako bolatokian. Jaiak hurrengo asteburuetan jarraituko du. Hilaren 17an, 12:00etan San Andres elizan meza ospatuko dute eta, ondoren, Kantabriako Etxeak Jardineetan duen tabernan piskolabisa emango zaie elkarteko bazkide eta lagunei. Eta hilaren 23an, Lloedoko Voces de Alfoz abesbatzak emaldia eskainiko du, 20:00etan San Pio X.a elizan eta, ondoren, piskolabisarekin agurtuko dituzte ekitaldiak, Ipuruako bolatokian.

## Legarreko jaietako bazkarirako txartelen salmenta

Hilaren 22an egingo diote Legarreko jaietarako antolatu duten egitarauari, baina horren barruan egingo diren herri bazkarirako txartelen salmenta eta lehiaketetarako izen-ematea aurretik zabalduko dituzte: eguenetik aurrera egongo da bazkarirako txartelak erosteko aukera, baita kronoeskilara eta tortilla txapelketan parte hartzeko izena ematekoa, Bolintxon, Legarreko frutadendan eta Tarte kafetegian. Irailaren 19ra arteko epea izango da.



## JAVIER VICANDI UGALDE

*1. Urteurrena: 2016-IX-1*

*Gezurra badirudi ere, bada urtebete joan zinela.*

*Hutsune handia utzi diguzu.*

*Asko maite zaitugu. Musu haundi bat familiaren partez.*



## MANU FERNANDEZ GOIKOETXEA

**3. URTEURRENA: 2014-VIII-4**

**EZ EGIN NEGARRIK AMAITU DELAKO;  
IRRIBARRE EGIN BIZI IZAN DUGULAKO.**

**Zure kuadrila**





## Hegaztien munduari

### eskainitako erakusketa zabalik

Irailaren 30era arte egongo da "Hegaztien mundua" argazki erakusketa ikusteko aukera El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan, 11:00etatik 21:00etara. Pedro Perezek egindako argazkietan Euskal Herrian ikus daitezkeen hainbat txori azaltzen dira: horietako batzuk hemen bizi dira eta beste batzuk, berriz, bakarrik migrazio sasoiari, hau da, udaberrian edo udazkenean izaten dira gurean. Erakusketan Aragoi eta Kataluniako Pirinioetan bizi den ugatza, harrapakarien artean nabarmenetakoa den hegazia ere ikus daiteke.



### Iraileko argazki erakusketak

Klub Deportiboko Argazki Taldeak antolatuta, irailean bi argazki erakusketa izango dira ikusgai beste horrenbeste tabernatan: Ambigu tabernan Alba Sanchizen argazkiak ikusteko aukera izango da eta Portalea jatetxeak, berriz, Virginia Barinagak Auschwitz eta Sachsenhausen kontzentrazio eremuetan egindako argazkiak hartuko ditu.

### Matrikulazioa zabalik euskaltegietan

Eibarko euskaltegi bietan matrikulatzeko epea zabalik dago eta, betiko martxan, maila guztiak eta ordutegi zabala eskaintzen dituzte bietan. Udal Euskaltegian irailaren 26ra arte bete daiteke matrikula, Portaleko 2. pisuan, 08:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara (langabetu, ikasle, guraso, merkataritza/ostalari, 65 urtetik gorakoek... % 50eko deskontua izango dute matrikulan). Informazio gehiago nahi duenak 943 700912 telefono zenbakira deitu dezake. AEK euskaltegiak, berriz, irailaren 28ra arte izango du zabalik matrikulazioa. Izena emateko edo informazioa eskatzeko euskaltegira joan (Sostoatarren, 1) edo telefonoz (943201379) deitu dezake.



### Pailazoen ikuskizuna zapatuan

Zapatuan umeendako ikuskizuna eskainiko dute Monda eta Lironda pailazoen, 18:00etan El Corte Ingleseko 3. solairuko terrazan (euria egingo balu, ekitaldi aretoan izango da). Sarrera doan izango da. Horrekin batera, maskota lehiaketa antolatuko dute irailaren 16rako. Lehiaketa 3. solairuko terrazan izango da, 11:30ean eta izena emateko dendako maskota sailera, erdisotora joan beharko da.



## MARITXU OYARZABAL ERRASTI

2017ko uztailaren 24an hil zen

*Zure maitasuna ez da sekula amaituko*

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.




## MIGUEL ZAMACOLA GANCHEGUI "MAC"

1. urteurrena (2016/VIII/6)

**"ZU JOAN ZARA, BAINA ZUREGANAKO GURE MAITASUNA EZ. EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA"**



## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## hildakoak

- Rafael Herce Garraleta. 81 urte. 2017-VII-1.
- Pilar Sologaitua Oregi. 85 urte. 2017-VII-2.
- Marivi Etxeberria Agirre. 79 urte. 2017-VII-3.
- Bernardo Chimeno Perez. 77 urte. 2017-VII-3.
- Jaione Lazpita Areitibiritxinaga. 83 urte. 2017-VII-5.
- Iñaki Hierro Gil. 47 urte. 2017-VII-10.
- Leonardo Hortelano Carrascosa. 84 urte. 2017-VII-13.
- Jeronima Mandiola Bilbao. 91 urte. 2017-VII-13.
- Iñaki Fernandez Mendizabal. 62 urte. 2017-VII-14.
- Miren Iturricastillo Sarao. 86 urte. 2017-VII-15.
- Antonio Salas Lizaur. 84 urte. 2017-VII-15.
- Pilar Arizmendiarieta Oregi. 94 urte. 2017-VII-16.
- Remedios Diaz Buenosvinos. 73 urte. 2017-VII-17.
- Agustina Errazu Erkiaga. 90 urte. 2017-VII-20.
- Nieves Bereziartua Kortazar. 94 urte. 2017-VII-23.
- Maria Urien Aranguren. 87 urte. 2017-VII-23.
- Maritxu Oiarzabal Errasti. 79 urte. 2017-VII-24.
- Ines Sierra Busto. 87 urte. 2017-VII-25.
- Jose Luis Beato Guemez. 69 urte. 2017-VII-26.
- Iñaki Agirregomezkorta Markiegi. 59 urte. 2017-VII-27.
- Iñaki Oñederra Egaña. 59 urte. 2017-VII-29.
- Rosa Mugerza Kareaga. 94 urte. 2017-VII-30.
- Manu Arias Salgado. 58 urte. 2017-VIII-5.
- Ramon Hernandez Treviño. 68 urte. 2017-VIII-5.
- M<sup>a</sup> Teresa del Cabo Alonso. 62 urte. 2017-VIII-5.
- Julian Amuategi Sarasketa. 88 urte. 2017-VIII-7.
- Basilio Txurruka Aizpuru. 97 urte. 2017-VIII-8.
- Eugenio Elejalde Gisasola. 93 urte. 2017-VIII-9.
- Nestor Zubikarai Martinez. 44 urte. 2017-VIII-11.
- Emilia Nieto Meire. 91 urte. 2017-VIII-12.
- Maria Suarez Gonzalez. 102 urte. 2017-VIII-13.
- Sara Marcos Calvo. 67 urte. 2017-VIII-15.
- Juana Garai Arce. 99 urte. 2017-VIII-17.
- M<sup>a</sup> Luisa de los Mozos Cavia. 93 urte. 2017-VIII-18.
- Manuel Osa Iribar. 93 urte. 2017-VIII-20.
- Delfina Guilarte Campillo. 75 urte. 2017-VIII-22.
- Javi Zarrua Arguizoniz. 59 urte. 2017-VIII-25.
- Gregoria Pascual Garcia. 89 urte. 2017-VIII-25.
- Manuel Barrutia Urtaşun. 88 urte. 2017-VIII-26.
- Dolores Muniozguren Narbaiza. 93 urte. 2017-VIII-27.
- Benita Albizu Bari. 87 urte. 2017-VIII-28.
- Francisco San Martin Maguregi. 95 urte. 2017-VIII-29.
- Araceli Gonzalvo Agirre. 89 urte. 2017-VIII-29.
- Gregorio Alberdi Osoro. 59 urte. 2017-VIII-31.
- Javier Bolunburu Mujika. 76 urte. 2017-VIII-31.
- Teresa Montero Sevillano. 74 urte. 2017-VIII-31.

## jaiotakoak

- Omar El Arrass L Arrass. 2017-VII-3.
- Ndiaga Rachid Dieng Mbaye. 2017-VII-7.
- Ayeza Bilal. 2017-VII-8.
- Malen Arrate Perez Da Silva. 2017-VII-8.
- Mohammad Rehan Bouzaldi. 2017-VII-15.
- Jelissa Geraldino Alejandro. 2017-VII-20.
- Bilal Soussi Tafraouti. 2017-VII-22.
- Viviane Diao Lobo. 2017-VII-23.
- Emma eta Khloe Hiriart Carrasco. 2017-VII-24.
- Elene Pellejero Iparragirre. 2017-VII-26.
- Paul Sendino Chicote. 2017-VII-26.
- Alma Goikoetxea San Roman. 2017-VII-26.
- Enaitz Pacho Mendez. 2017-VII-27.
- Ander Ramos Gil. 2017-VII-27.
- Lucia Gomez Perez. 2017-VII-31.
- Laia Conde Lemos. 2017-VIII-1.
- Amin Rahali. 2017-VIII-9.
- Razan Boufadla Bihlali. 2017-VIII-11.
- Julen Arana Alberdi. 2017-VIII-11.
- Enara Zabalbeaskoa Etxaniz. 2017-VIII-16.

telefono  
jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

## farmaziak

- Eguaztena 6  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 7  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Barixakua 8  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 9  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 10  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 11  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 12  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 13  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 14  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Barixakua 15  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
Mandiola (S. Agustin, 3)

- Maria Martinez Goikoetxea. 2017-VIII-17.
- Muhammad Huzaifa Aslam. 2017-VIII-18.
- Riyad Saomadi. 2017-VIII-20.
- Miren Villar Santo Tomas. 2017-VIII-23.
- Alma Da Costa Perez. 2017-VIII-24.
- Miren Eizagirre Arrieta. 2017-VIII-24.
- Mathias Aaron Mata Piña. 2017-VIII-27.
- Haizea De la Hoz Gomez. 2017-VIII-27.
- Dikra Faraji Allaoui. 2017-VIII-29.
- Jon Quina Vidal. 2017-VIII-31.





**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, LIHER Olano, abuztuaren 31n 2 urte egin zenduazelako. Patxo haundi bat aitxitxa-amamaren eta Landerren partez.



Zorionak, GARAZI, abuztuaren 17xan 9 urte egin zenduazena-eta. Musu potolo bat, sorgintxo, etxequon partez.



Zorionak, UNAX, abuztuaren 24an 4 urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bat etxequon eta, batez be, Jakesen partez.



Zorionak, MAREN, abuztuaren 26xan 6 urte bete zenduazena-eta. Musu bat tio Iñigo, Ana eta amama Arantzaren partez.



Zorionak, IRATI, domekan 8 urte bete zenduazena-eta. Etxekuen eta, batez be, Suaren partez. Zorixonak, printzesa!!!




Zorionak, IXONE Ortiz de Zarate Torre, bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat, printzesa, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, XABI!!, abuztuaren 6xan 7 urte egin zenduazelako. Famelixaren eta, batez be, Ane eta Mara zure printzesen partez.




Zorionak, HELENE!!, abuztuaren 12xan 3 urte egin zenduazena-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Ametsen partez.



Zorionak, SAIOA, gaur 4 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxequon eta, batez be, Joaneren partez.



Zorionak, EKAIN!, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EUKENE, abuztuaren 19xan 8 urte egin zenduazena-eta. Musu haundi bat etxequon partez.



Ongi etorri, HAIZEA de la Hoz, hillaren 27tik gurekin zagoz-eta. Laztantxo bana umiari, amari eta aittari etxequon partez.



Zorionak, MANEX (abuztuaren 8xan 3 urte) eta amatxo SUSANA, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bana.



Ongi etorri, ENAITZ, uztaillaren 27tik gurekin zaralako.. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, NAIA eta IRATIren partez. Eta zorionak amatxo Shailari, haraiñegun urtiak egin zittuan-eta.



Zorionak, EKAIN, domekan 3 urte egingo dozuz-eta, eta AITXITXA, datorren eguaztenian zure eguna izango da-eta. Asko maite zaittuegu!!!!



11 zembakixarekin... ANER Amuategi!!! Zorionak, txapeldun! Asko maite zaittuegu!!!



Zorionak, MONICA, abuztuaren 26xan urtiak bete zenduazena-eta. Musu haundi bat lagun eta famelixaren partez.

# SUDOKUA

	2		7	4		9		6
			6					3
	9			8		4		
						3		2
	1						5	
7		3						
		1		9			7	
5					8			
9		4		5	1			3

4	1	9	8	5	3	6	7	2
5	3	8	2	7	6	9	4	1
7	6	2	4	1	9	5	8	3
9	2	6	3	8	7	4	1	5
8	4	3	5	6	1	2	9	7
1	7	5	9	2	4	8	3	6
2	5	1	7	9	8	3	6	4
3	9	7	6	4	2	1	5	8
6	8	4	1	3	5	7	2	9

# AURREKOAREN EMAITZA

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Jardina eta kalean, 3 logela eta terraza. Igogailua eta kalefakzioarekin. 80.000 eurotan. Tel. 669-682148.  
– Pisua salgai Elgetan. Behe solairuan, 65 m<sup>2</sup>, terraza (20 m<sup>2</sup>) eta garajearekin. Prezio negoziagarria: 139.950 euro. Tel. 644-387643. Maite.

### 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Deban uda osorako, Itsasbegi kalean. Igerileku, frontoi eta garajearekin. Tel. 635-730841.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-649850.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.  
– Martxan dagoen taberna alokagai Eibar erdialdean. Tel. 943-820474.  
– Garaje itxia alokagai Asua-Erreka kalean. Tel. 616-959625.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko: umeak edo nagusiak zaindu, garbiketak egin... Tel. 631-230281.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Externa. Tel. 600-840833.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 632-700803.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 626-722291.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Arratsalde, gauz eta asteburuetan. Tel. 658-458061.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 654-154301.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 602-844282.  
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta umeen etxeko lanak egiteko. Titulua eta esperientzia. Tel. 688-639371.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-345286.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-521520.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko asteburuetan. Tel. 688-818176.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta sukaldari jarduteko. Tel. 657-479770.  
– Emakumea eskaintzen da interna edo externa. Tel. 631-110716.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (11:00-18:00 eta baita gauz ere). Erreferentziak. Tel. 655-677035.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-143009.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 632-999079.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 663-468691. Marina.  
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 645-723818.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Goizez eta arratsalde. Tel. 629-889465.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko asteburuetan. Tel. 631-247899.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduzabala. Tel. 632-531128.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 611-226678.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 631-952827.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 602-047812.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-979558.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak eta bestelakoak egiteko: lokalak, pegorak, tabernak... Tel. 632-426847.  
– Emakumea eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 673-436363.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-733506.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduzabala. Esperientzia. Tel. 612-245326.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 674-687863.  
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-291539.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-838329.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren eta inguruan. Tel. 632-061103.  
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, ospitalean gaua pasatzeko, etxean orratzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 652-587259.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 633-101852.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-092294.  
– Bi mutil eskaintzen dira tabernan jarduteko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-761423.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 612-278600.

– Eibarko akademiak ingeleseko irakaslea behar du. Esperientzia ezinbestea. Bidali curriculum: irakasleibarCV@gmail.com  
– Pertsona behar da jabetxe bateko sukaldean garbiketak egiteko eta laguntzeko. Tel. 659-539861.  
– Igeriketa-monitoreak behar dira. Curriculum-a bidali: eibarigerixan@gmail.com  
– Sukalde-laguntzaile behar da esperientziarekin Eibarren. Bidali curriculum-a I.A. 526 / 20600 Eibar posta-kutxara.  
– Barra eta jangelaroko kamarera/o behar da esperientziarekin Eibarren. Bidali curriculum-a I.A. 526 / 20600 Eibar posta-kutxara.  
– Psikologoa behar da Eibarren psikologia eta umeentzako aholkularitza zentro batean. Irailean hasteko. E-maila: gpsi-mac@gmail.com  
– Monitorea behar da Ugan Klubean arratsaldetarako (spinning, aerobic eta abar). Tel. 943-820452 eta uganklub@gmail.com  
– Bi neska behar dira Eibarko taberna batean lan egiteko: bat astelehenetik zapatara arratsalde eta bestea (sukalderako) barixaku eta zapatuetan. Esperientziarekin. Tel. 655-722967.  
– Dendaria behar da janaridenda baten lan egiteko. Bidali curriculum-a Eibarko 21 postakutxara.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Italaria ikasi edo praktikatu nahi baduzu, maila guztietako eskolak eta mintza-praktikak eskaintzen dira Eibarren. Tel. 645-723818.  
– Klase partikularrik eskaintzen dira LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. Tel. 695-749105.  
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Sukaldea salgai bonbonak eramatekoarekin. 0'90 zabalerakoa. Gasarena eta labea. Tel. 617-688311.  
– 3. mailako DBHko liburuak saltzen ditut. Tel. 645-007388.  
– Egongelako altzari modernoak eta logelako haritz-altzariak salgai. Oso egoera onean. Tel. 658-717754.  
– Altzariak saltzen ditut. Butaka, idazmahia komodarekin eta hiru alfombra irlandar: bi ohe ertzerako eta hirugarrena egongelarako. Tel. 665-724697.  
– Bigarren eskuko DBH 3. eta 4. mailako liburuak saltzen ditut. Tel. 653-705096.

### 6.2. Eman

– Katakumeak (beltzak eta gorriak) oparitzen dira. Tel. 643-681509.

### 6.4. Bestelakoak

– Bikotea beharko nuke mintzapraktika egiteko: frantsesa-euskera edo frantsesa-gaztelera. Tel. 658-992412.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus





EZKONTZAK BATAIOAK JAUNARTZEAK

[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com)  
[kantabria@kantabriajatetxea.com](mailto:kantabria@kantabriajatetxea.com)

RESTAURANTE KANTABRIA  
 KANTABRIA JATE TXEA

Arrate Gaina, 4 – 279 postakutxa – 20600 EIBAR  
 Telf. 943 121 262

**Irailaren 26<sup>ra</sup> arte MATRIKULA ZABALIK**

**17/18**  
 ikasturtea

**- MAILA GUZTIETAKO euskara ikastaroak**

16 urtetik gorakoentzat

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	

- Autoikaskuntza: **Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasalok** (BOGA programa)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (AISA)
- Azterketa prestakuntza
- **HABEko** titulu ofizialak

ordutegi zabala

**TARIFA BEREZIAK:**

**%20, %50 eta %75eko deskontua**

**KONTSULTATU**

*Eibarko Udal Euskaltegia*

**Bista Eder, 10 -PORTALEA-**

**euskaltegia@eibar.eus**

**Tfnoc: 943 70 09 12**

**Faxa: 943 82 00 89**





EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



Hizkuntza Eskola Ofizialak  
Escuelas Oficiales de Idiomas

# Eibarko Hizkuntza Eskola

MATRIKULAZIO  
OFIZIALA:

**Irailaren**  
**1**etik **18**ra



*Edozein adin egokia delako hizkuntzak ikasteko*

**DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS**

*gazte eta jubilatuek ere badaukazue lekua gure eskolan*



**\*14 urtetik gora:** *Frantsesa eta Alemana* (eskolan Ingelesa atzerriko lehen hizkuntza bada).  
**16tik gora:** Edozein hizkuntza.

**14 urtetik gora\***

Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:

[www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net)

[www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak)

**Ikasturte osoaren prezioa: 72,36 euro**

